

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresaren izena "Dead Party" deitzen da. Enpresa hau heriotza gaiarekin lotuta dago. Familiak kontratatuta, ekitaldiak antolatzen ditugu hildakoari omenaldi bat egiteko; haiek erabakitzen dute ekitaldi horretan zer egin, hala nola, festa bat, bazkari bat, bilera bat...

Gure helburua jendea kontzientziatzea da, heriotza beste modu batean ikustea eta tabuzat ez hartzea, hau da, gaia normalizatzea. Horregatik, gure enpresan psikologo/terapeuta talde bat egongo da edozein momentutan gure bezeroen beharrei erantzuteko; ekitaldia baino lehen, bitartean edo ekitaldiaren ondoren izan daiteke.

Ez da inor behartuta egongo, haiek gurekin kontaktuan jarriko dira ekitaldia aurrera eramateko.



Web orri bat sortu dugu haiek informazio gehiago eskuratzeko. Bertan gure telefono zenbakia eta helbide elektronikoa agertuko dira gurekin kontaktuan jartzeko. Ez badute online bidez gurekin kontaktuan jarri nahi, Gasteizen bulego bat daukagu pertsonalki hitz egiteko eta zalantzak argitzeko.

Euskal Herri osotik mugituko gara, baina gure ideiak arrakasta badu Espainia osotik edo munduko beste leku batzuetatik zabalduko gara.

Gure ideia nahiko originala denez, gure balioa kualitatiboa izango da.

Inguruan antzeko zerbitzurik ez dagoela kontuan hartuta, lehen esan dugun bezala bulegoa Gasteizen kokatzea erabaki dugu.

Gure enpresan eskaintzen ditugun ezaugarriak haiek dira: berritasuna, eskuragarritasuna eta diseinua. Berritasuna ezaugarria daukagu zerbitzu hau berria delako, eskuragarritasuna hainbat harreman-iturri ditugulako (web orria, telefonoa, bulegoa...) eta bestalde bezeroaren arabera guk diseinua egokituko dugu eta behar diren zerbitzuak antolatuko ditugu.

